

AURREKONTUAREN MEMORIA

2018 urteko aurrekontua 2017koaren ildo beretik joango da. 2018 urtean diru-sarrerara gehiago izango ditugu, 22.245 euro, udal ekarpena handitu egin delako.

2017 urteko Auzo Udalaren kudeaketa honako ildo nagusi hauetan azaldu daiteke:

Zerbitzuen atalean:

Taberna

2015ean tabernaren ustiaketa kontratua 2 (+1+1) urtetarako esleitu zen. Bi urteren ondoren, zerbitzua ona izan dela baieztatu daiteke eta auzotarrek ere horrela irizten diote. Hortaz, 2017ko abenduan kontratua beste urte betez luzatzeko proposamena egingo zaio.

Iaz bezala, aurten ere uztailean tabernako terrazan 5 ostegunetan musika emanaldiak egin dira eta oso harrera ona izan dute jende aldetik eta giro polita sortu dute.

Tabernaren ustiatzaileek pilota lekuko aldagelen eta komun publikoaren garbiketaz arduratzen jarraitzen dute kontratuak agindu bezala, eta egoki betetzen ari dira lan hori ere.

Terrazaren zati batean itxitura arin bat jartzeko asmoa dago urtea amaitu aurretik.

Haurtzaindegia

Haur kopurua ez da hazi kurtso hasieran. Hala ere zerbitzuari eutsi egingo zaio, 2017-2018 kurtso amaiera arte, behinpein.

Artetik ikastaroak

Eskolako umeentzat HUak antolatzen dituen ikastaro eta tailerrak, urtero bezala eman dira eskolan, Auzo Udalaren aurrekontuaren kargura.

Udal lekuak

Aurreko urteetan bezala uda partean haur eta gazteentzako hainbat jarduera antolatu dira gure auzoan, ez bertakoentzat bakarrik, auzoz kanpotik ere etortzen baitira zerbitzu honetaz baliatzeko.

Egiten den eskaintzak harrera ona izaten jarraitzen du eta izen emandakoen kopurua hazten ari da.

Gizarte alorreko jarduerak:

“Berriketari” izeneko saioak aurten ere egin dira eta baita egun beteko txangoa autobusez, Erriberako Marcillara, hain zuzen.

Orain arte talde honekin lanean aritu den monitoreak ezingo du jarraitu eta urte bukaerarako beste pertsona batek hartuko du bere lekua.

Euskera alorreko zerbitzuak

Auzoan ugaritzen ari da kanpotik etorritako biztanleen kopurua. Hauetako zenbaitek euskeraz ikasteko eta egiteko nahia erakutsi dute. Urte hasieran euskera irakatsi eta praktikatzeko zerbitzu bat abiatu zen eta ikasturte honetan ere emango da. Zerbitzu hau Hernaniko euskaltegiarekin batera antolatu da eta, horretaz gain, Doberaren bidez, haurtzaintza zerbitzu bat eskaintzen zaie ume txikiak dituzten ikasleei.

Ongintza

Astearteroko gizarte laguntzaileak auzo etxean ematen duen zerbitzua finkatuta dago, baina bertara etortzen den pertsonen kopurua ez da hazi. Aurten ere etxez-etxeko azterketa egingo du gizarte laguntzaileak beharrak zuzenean ezagutzeko.

2016-2017 kurtsoan ere kasu berezientzako eskola partikularra eman zaie bi ikasleri.

Mediku zerbitzuak

Aurten ere gripearen aurkako txertaketa Auzo etxean bertan egin da eta aurreko urteko kopuru beretsuak erantzun dio deialdiari.

Bihotz-birika arazoengatik sor litezkeen larrialdiei erantzun ahal izateko hiru desfibrilagailu jarri ziren iaz auzoan. Aurten erabiltzaileentzako ikastaroak berri dira.

Aurten ere odol emaileek Ereñotzun eman ahal izan dute odola bitan. Bataz beste 15-20 odol emate egiten dira eta zerbitzua finkatuta dago.

Garraio publikoa

GFAk 2015-2016a arte emandako garraio zerbitzua igeriketa kurtsorako - iaz ez zen egin – kendu egin du eta zerbitzu diskrezional bat kontratatu behar izan du Auzo Udalak. Iaz Ereñotzuko Auzo Udalak eta Hernaniko Udalak akordio bat sinatu zuten eskolaz kanpoko jardueretako garraioaren kostuak partekatzeke: garraio publikoko kostua (lurralde bus, korreoa, e.a.) EAUren kargu eta diskrezionalak HUren kargu. Orain arteko guztiak EAUk ordaindu ditu.

Eraikuntza eta kale garbiketa eta lorezaintza

Iaz Ausolanekin sinatu zen urte beteko kontratua eta 2017-2018 ikasturterako ez du aurrekonturik aurkeztu nahi izan. Beste eskaintza batzuk aztertu ondoren, Zerbitzua Limpiezas Villarri esleitu zaio.

Kale garbiketarako FCCren zerbitzuarekin jarraitzen dugu eta Lorezaintza zerbitzua Goroldirekin.

Internet sarea

Arrondon eta Ugaldetxoko gainaldean jarritako antenen bitartez Internet seinalea jasotzen jarraitzen dute auzoko hainbat erabiltzaileek. Datorren urtean antenetan aparailu indartsuagoak jarriko dira zerbitzua hobetzeko.

Ordenagailu gela

Internet sarearen hedapena gero eta zabalagoa denez, auzo etxeko ordenagailu gelaren erabilpena txikiagoa da orain, baina oraindik badaude erabiltzaileak.

Kirol jarduerak

Aurten ere antolatu da mendi lasterketa. Korrikalari kopurua zertxobait jaisten ari bazen ere, aurten haunditu egin da eta helburu guztiak ederki bete dira.

Pilota lekuaren erabilerari dagokionean, erabiltzaile kopuruak berdintsu jarraitzen du 2017-2018 denboraldian. Hernaniko Pilota Elkarteak astelehenetik ostegunera erabiliko du 6etaik 7etarako ordua alebientzako eta horretaz gain, neska paletistak ostiraletako azkeneko ordua erabiliko dute doan.

Aurten ere emakume federatu gabeentzako pala txapelketa jokatu da.

Ur Miako Bola eta Toka sailari diru laguntza ematea erabaki du Auzo Udalak.

Ondare kulturala

Auzo Udalak ondare kulturala berreskuratze alor honetan ahalegina egiten jarraitu nahi du, burbunak eta etsaiak liburuaren argitalpenerako Dobera elkartearekin diru laguntza hitzarmenak sinatuko du datorren urterako.

Urumea Kronika

Auzo Udalak Doberarekin sinatutako hitzarmenaren arabera 3.000 euroko ekarpena egin du eta 2017an ere jarraipena izango du.

"Olak" Auzo Elkartea

Aurreko urteetan bezala, Auzo Elkartearen jarduera finantzatu du (25.000 euro) Auzo Udalak. Ohi bezala, Auzo Elkartearen bitartez bideratu dira hainbat antolaketa eta jarduera, esate baterako, San Antonio jaiak, Udazken Kulturala, Udalekuak, ludoteka, yoga, aerobic, haurtzaintza eta "Berriketari" taldea.

Turismoa

Ez da berritasun haundirik izan atal honetan. 2013an Goizueta, Arano, Ereñotzu eta Hernaniko udalen artean Urumea bailaran turismoa sustatzeko asmoz sortu zen web orriaren mantentze lanak egin dira. Sarrera kopuru polita izaten ari da.

Mantentze lanetan eta Inbertsioetan

Aurtengo lan eta inbertsio aipagarrienak hauexek izan dira:

- Eskolan irisgarritasuna hobetzeko lanak (igogailua jartzea, e.a) (40.000 euro inguru)
- Eskolako berokuntza sistema hobetzea (20.000 euro inguru)
- Eskolatik Alkatxuinera dijoan bidean 27 farola jarri dira (60.000 euro inguru)
- Bola tokiko teilatua eta egitura konpontzea (30.000 euro inguru)
- Elizaren sahietseko lokalaren egokitzapen lanak (10.000 euro inguru)
- Ereñotzu 21eko Auzo Udalaren lokalaren egokitzapen lanak (7.500 euro inguru)
- Fagollagan autobus geltokian markesina jarri da (6.500 euro inguru)
- Errepidetik Epele Torren barrena dijoan bidea ere argiztatu nahi zen aurten, bana bidearen zesio hitzarmena ezin izan da garaiz egin eta datorren urterako utziko da lan hau
- Epeleko auzoa eta fabriken arteko bidean espaloia jartzeko GFArekin proiektua adostuta dago. Lanen kostua GFAREN gain izango litzateke, baina Auzo Udalak bere gain hartuko litzuzke espaloaren argiztatzea eta bi markesina jartzea autobus geltokietan. Baina oraingoz ez da lur jabeekin hitzarmenak sinatzea lortu. Aurten ezin bada egin, datorren urteko aurrekontura pasako dira lan hauek. Hala ere aurten bi markesinetako bat jarri ahal izango da.
- Epeleko parkean etxola bat eta komun bat jartzeko asmoa zegoen, baina Hernaniko Udaleko Hirigintzan proiektua aztertzeke betarik izan ez dutenez, datorren urterako utziko da asmoa.

Aurrekontua

Ereñotzuko Auzo Udalaren 2017ko aurrekontua

Ereñotzuko Auzo Udalaren sorrerako Foru Dekretuak markatutakoaren arabera, 2017ko aurrekontua 349.945,00 €koa izan da oinarrian:

| | |
|--|------------|
| Pertsonala, zerbitzuak eta gastu arrunta | 280.237,00 |
| Inbertsioak | 69.707,00 |

Horretaz gain, iazko gerakinak eta kreditu aldaketak (101.225,00), tasak (5.700,00) eta EJren diru laguntza (18.873,00) batu ondoren, aurrekontua guztira 475.742,00 eurokoa izan da.

Urtea amaitu arteko aurreikuspena hauxe litzateke:

| | |
|------------------|------------|
| Pertsonal gastua | 39.427,00 |
| Gastu arrunta | 283.643,00 |
| Inbertsioak | 74.495,00 |
| Guztira | 405.565,00 |

Ereñotzuko Toki Entitate Txikia

Aurreikusitako emaitza 78.177,00

Urtero bezala, fondo foraleko likidazioa Ereñotzuko Auzo Udalarari honela aplikatuko zaio:

EAUeko sarrera arruntak

----- x HUri aplikatutako desbideratzea

HUeko sarrera arruntak

Kontuak oraindik itxi ez badira ere, zorrik gabe bukatuko dugu urtea.

Ereñotzun, 2017eko urriaren 27an

Imanol Lizeaga Urdanpilleta

Auzo alkatea



2018(e)ko ORDAINKETEN AURREKONTUA
PRESUPUESTO DE INGRESOS 2018
EKITALDIEN KONPARATIBOA (KAPITULUAK)
COMPARATIVO DE EJERCICIOS POR CAPITULOS

| Kapitulua Capítulo | 2,018 | 2,017 | Diferentzia Diferencia 2,018 - 2,017 | Portzentajea Porcentaje 2,018 / 2,017 |
|--|-------------------|-------------------|--|---|
| 3 TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK TASAS Y OTROS INGRESOS | 4,140.00 | 5,600.00 | -1,460.00 | -26.07 |
| 4 TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 373,649.00 | 280,237.00 | 93,412.00 | 33.33 |
| 7 KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | 69,707.00 | | |
| 8 FINANTZA AKTIBOAK ACTIVOS FINANCIEROS | 100.00 | 100.00 | 0.00 | 0.00 |
| Guztira Total | 377,889.00 | 355,644.00 | 91,952.00 | 6.25 |

**2018(e)ko GASTUEN AURREKONTUA
 PRESUPUESTO DE GASTOS 2018
 EKITALDIEN KONPARATIBOA (KAPITULUAK)
 COMPARATIVO DE EJERCICIOS POR CAPITULOS**

| Kapitulua Capítulo | 2,018 | 2,017 | Diferentzia Diferencia 2,018 - 2,017 | Portzentajea Porcentaje 2,018 / 2,017 |
|---|-------------------|-------------------|--|---|
| 1 PERTSONAL GASTUAK GASTOS DE PERSONAL | 43,178.00 | 42,600.00 | 578.00 | 1.36 |
| 2 GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZER GASTOS EN BIENES CORRIENTES Y | 211,754.00 | 212,737.00 | -983.00 | -0.46 |
| 4 TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 47,050.00 | 30,500.00 | 16,550.00 | 54.26 |
| 6 INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES | 75,807.00 | 69,707.00 | 6,100.00 | 8.75 |
| 8 FINANTZA AKTIBOAK ACTIVOS FINANCIEROS | 100.00 | 100.00 | 0.00 | 0.00 |
| Guztira Total | 377,889.00 | 355,644.00 | 22,245.00 | 6.25 |

2018 AURREKONTUA

TRANSFERENTZIEN ERANSKINA - TRANSFERENTZI ARRUNTAK:

| PARTIDA | AZALPENA | | € |
|------------------|------------------------------------|-----------|-----------|
| 01.481.01.334.00 | DIRULAGUNTZA ZUZENAK | | 47.050,00 |
| | DOBERA EUSKARA ELKARTEA | 3.000,00 | 0,00 |
| | Urumeako Kronika argitalpena | | |
| | DOBERA EUSKARA ELKARTEA | 13.000,00 | |
| | Burbunak eta etsayak proiektua | | |
| | OLAK AUZO ELKARTEA | 27.500,00 | |
| | Auzoko Kultur egitaraua lantzeko | | |
| | UR MIA SOLAS ELKARTEA | 550,00 | |
| | Kultur ekintzetarako | | |
| | UR MIA SOLAS ELKARTEA | 1.500,00 | |
| | Kitol ekintzetarako. Bola eta Toka | | |
| | GURASO ELKARTEA-TXIRRITA ESKOLA | 1.500,00 | |
| | Eskolaz kanpoko hainbat jarduera | | |

TRANSFERENTZIEN ERANSKINA - KAPITAL TRANSFERENTZIAK:

Ez dago

INBERTSIOEN ERANSKINA:

| PARTIDA | AZALPENA | | € |
|------------------|-------------|--|-----------|
| 01.629.01.459.00 | INBERTSIOAK | | 75.807,00 |